

## IMANOL MURUA, GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAREN HITZAK

Jaun-andreok, arratsaldeon.

Ez da oraindik denbora asko —joan den martxoaren 30ean hain zuzen ere— omenaldi bero bat eskeintzen geniola Foru Diputazio honetan XVIIIgarren mendeak eman zigun gipuzkoar ospetsuari: Xabier Maria Munibe, Pedafloridako konteari, haren heriotzaren bigarren mendeurrena gogoratuz.

Gaur, berriz, Peñafloredak sortu zuen erakunde nagusienaren itzalpean bildu gara, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen itzalpean eta honek eratutako Elkarteko Kondairaren lehen Mintegia bukatu asmoz.

Mintegi honetan argi geratu denez eta nere aurreko hizlariiek adierazi duten bezela, berebiziko garrantzia du euskaldunontzat XVIII garren mendeak. Berebiziko garrantzia du, Filosofia, Zientzia eta Merkataritza arloan gauzatu ziren zenbait planteamentu berrizale eta aurrerakoiei esker, gizarte berri eta modernizatu baten oinarriak ezarri zirelako: jakintza aurreratuz eta herrikoiagotuz batetik eta bestetik ekonomigintzari zegozkion tresna zientifiko eta teknologikoak berrituz eta eguneratuz.

Kontextu berri batetan eta beste denboratasun baten barruan, hain zuzen XXIgarren mendearen atarian, teknologia eta ekonomia aldeko aldakuntza sakon batzuen aurrean aurkitzen gara gaur ere. Beti bezela, geroa gaur ere desafio dugu. Baina hara hemen galdera: XVIIIgarren mendeko euskaldunak bezain adoretzu, kementsu eta ausart jokatu ote dugu gaurko euskaldunok eraberritze honen aurrean?

Hain zuzen ere hortarako, horren kontzientzia izateko baliagarri izan delakoan nago Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kondairaren lehen Mintegi hau; proiektu haren garrantziaz jabeturik bagaude beste horrenbeste egiteko gai izan gintezke, gizarte berri bat sortuz eta mende berri batera jaioaz.

*1985ko Urriak 9*

## PALABRAS DEL DIPUTADO GENERAL DE GUIPUZCOA D. IMANOL MURUA

Señoras y señores, muy buenas tardes.

Es un motivo de satisfacción para esta Diputación Foral, haberles recibido en la Inauguración de este Primer Seminario de Historia, y, por supuesto, es motivo de satisfacción personal el estar con Vds. en *este acto de clausura*.

Enmarcadas estas Jornadas dentro de los actos conmemorativos del II Centenario de la muerte del Conde de Peñaflores, se ha querido, con ellas, tener una aproximación hacia personas e ideas, hacia un proyecto rico y complejo como fue el de la R.S.B.A.P.

A la vista de la exposición de don José Ignacio Tellechea Idígoras, con un perfecto análisis de lo que en este Seminario se ha tratado y de las palabras del Sr. Director de la R.S.B.A.P., don José Manuel López de Juan Abad, no queda sino congratularnos de tan excelente resultado científico.

El siglo XVIII tiene para los vascos una importancia capital. Hombres de grandes capacidades creativas atisban la modernidad, el enorme desafío que la misma representa para un País como el nuestro, lleno de elementos singulares, y tratan de buscar la fórmula equilibradora que, sin romper con el pasado, proyecte a la sociedad vasca, en las mejores condiciones, hacia la nueva situación en puertas.

Hoy es el día en que cambios tecnológicos y económicos, cualitativamente profundos, se vislumbran con una dimensión planetaria. Es un desafío que, aunque inmerso en otra temporalidad, necesita ser abordado con la misma grandeza de espíritu con que los hombres de la R.S.B.A.P. lo hicieron en el siglo XVIII. Y es precisamente en este punto, en el que este Primer Seminario de Historia adquiere su importancia. No en cuanto a los contenidos más específicos o definidos, sino en cuanto a la totalidad de aquel proyecto, y las querencias que lo animaron.

Señoras y señores, muchas gracias a todos por el trabajo realizado, queda clausurado este Primer Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País.

9 Octubre 1985  
Imanol Murua